

BIZIA ETA KRISTAUA
HAZI TXIKI MIRESGARRIA

Haur sortu berriaren gorputzean dagon hazi txiki miresgarria, *Bizia* da.

Emeki-emeki iratzartzen ditu lo bezala dauden ontasun eta ahalbatzu, ezin asmatuzkoak:

- *esku* ttipi pottolo horiek, nork daki ez direnez bihurtuko langile baten, mediku baten, piano-joile baten esku abillak?

- *begino* lainotsu eta lauso horiek, egun batez gai izan daitezke ala zeruko leizen, ala atomo niminoen ikertzeko.

- doi-doi ahopeka ariko diren *ezpain* horiek ez ote dira berdin izango diputatu, irakasle, predikari, mintzatzaile eder batenak?

. - oraindio alfer dagon *adimendu* horrek zertako ez ditu, handitu-eta, munduak darabilaten legeak aurkituko, ohartuz era berean haien iturburu eta helburu den Jainkoaz?

- eta oraindio etxeko begitarte bakar batzu baizik maite ez dituen *hihotz* hori, ez ote da berdin zenbait urteren buruan bultzatuko jende guzien maitatzera, eta oroz gaisetik denen Aitaren amodioan bizitzera?

- Bai, hazi miresgarria da haur sortu berriaren gorputzean gordea dagon bizia!

Eta biziari buruz inork ez ditu gogo-bihotzak idekiago,

ohartuago, zinezko *kristauak* baino: zinezko kristauaz mintzo gara, ez alegiazkoaz, itxurazkoaz.

Izan ere, hedaduraz eta oldarrez, materialistek ez bezalako argiak emaiten diozka fedeak, orain esango dugun bezala.

Gure bizia Jainkoaren gaeik dator

Materialistek, batere probarik gabe, gora-goraka diote, materiaitsuak, suerte hutsez, halabcharrez, eman diola sortzea gizon adimendunari.

Fedeak, Jainkoak berak salaturik, erakusten digu Jainkoak kreatu duela materia, Jainkoak duela gidatzen bere aldatze eta irabio guzietan, eta Harek duela gizonaren izaitee materiatic sor-erazi, arime berezi batez dohatzen zuelarik.

Gizonen sortze eta hasierari doakon ikusteko molde horrek, badu noski argirik gure adimendua asetzeko, eta gure bihotzak alaitzeko.

Gizonaren bizia betikoa da eta Jainkoaren gana itzultzekoa

Haurraren gorputzean, hazi miresgarri baten antzera, hartzartzen hasia den bizi berria ez du sekulan herioak suntsituko.

Bizi hori *bizi betera* deitua da, Jainkoagan irautera, Jainkoaz beti gozatzeraz, bere Jaun etajabearen deia onesten badu.

Sineste horren aldean, zein *hestu* eta *murriz* den materialisten esana, gizonaren bizia jaiotzetik heriotzeraino arte labur irri-egingarri hortan mugatzea, beste deusen esperantzarik gabe!

Gure bizia oralndik Jainkoagan landatu eta handi ditekete

Sinesten dogu Jainkoak, gurea bezalako gorputz bat hartuz, gure gizarteko egin nahi izan duela, guri *bizi berri* bat emaiteko.

Hona Jesusek esana: «Ni hortako etorri naiz, bizia izan dezaten eta oparoago izan dezaten».

Hona Jesusen beste esan bat: «Bi edo hiru ene izenean elkarrekin non bilduko diren, han izango naiz ni ere haien artean».

Sinesten dogu, Kristoren bitartez eta Kristogan, Jainkoak *here bizia gure* bizien xertatzen eta ixurtzen duela, gu maitatu eta laguntzeagaitik: *txarto hori grazia* da.

Hona Jesusen hitz hau ere: «Ene Aitaren nahia egiten baduzue, Aita eta Ni zuengana etorriko gara, eta zuengan egongo».

Sinisten dugu Kristoren bizia *janarizat* eskaitzen zaigula, biderako indargarri.

Jesusek esana: «Ene haragia jaten duenak eta ene odola edaten betiko bizia izango du».

Holako asko aipa ahal genazake, Jesusen *mezua* bizizko mezua dela probatzeko.

* * *

Materialistek (kapitalista, komunista ala etsistentzialista izan) egin dezatela irri gure sinesteaz, nahi badute. Bainan ez bezate ageri agerian dena uka: biziari buruz hek baino biziki idekiago garela. Gauzak oso handizkiago ikusten ditugu; bizia errespetateko arrazoi hobeak ditugu.

Ez dugu, hori esanez, inor ere gutxi etsi nahi, bainan egiak bere bidea behar du.

Zenbaitzuk esango dute behar bada: «Ez ote duzue bizia edertzen, biziak dituen mugak eta miseriak ez ikusi nahiz?»

Edo Berdin: «Elizak ez ote du bere mandamentuez bizia tratatzen? Hain idekia ote da jakintzari, aurrerabideari, maitasunari?»

Ondoko kapituluetan emanen diotegu arrapostu galdera horiei. Goazen orain aldian aldikoarekin.

«Gizon bizia, horra Jainkoaren gloria», esan zuen San Ireneo saindu famatuak. Hitz horietan laburturik eman nahi zuen Jesusen eta Elizaren irakaspena. Zer erran nahi zuen? Deusek ez duela Jainkoa hala ospatzen eta poztzen, gizon *biziari idekiak* beza-

la.

Gure lehenengo eginbidea hona zer dan: Guban ezarritako hazi ttiki miresgarri hori *onartzea*.

Gero, bizi horren dohai guziak *handitzen laguntzea*.

Inolaz ere jari *trabarik ezjartzea*, egia eta maitasun geiagorako daraman bidean.

Hira maila

Nonbait irakurria dugun konparazioa argigarri batek ulertaraziko digu gizonaren biziak hiru maila iragan dezakela: adimenduzkoa, fedezkoa, amodiozkoa.

Aldizkariak gero eta maizago aipatzen dizkigute zero goietarantz bialtzen dituzten ontzi, zirta edo satelliteak ilargira edo izarbeletara (planetetara) heldu beharrez.

Lurretik obus bat bialtzen dute, hiru zirta, hiru zati dauzkana. Lehenengo zatiak 22 kilometro egiten ditu gora, baina ez du gorago joateko indarririk. Orduan bigarren zatia, bigarren zirta pizten da eta 308 kilometro gorago igoten. Orduan hirugarren zirtaren aldia da. Piztu eta aurrera abiatzen da, handik aurrera ezerk atzerantz tiratzen ez diola, lenengoko biegi egiten zitzaizen bezala.

Bere biziaren helburura heltzeko, gauza bera gertatzen zaio gizonari.

Hasteko, *adimenduak* oso urrun garamatza, bide ederretan zehar. Munduko bertze izaite guzietarik bertzelakoak garelako erakusten digu.

Baina adimenduak halako batean bere muga joiten du, aurrerago ezin da joan; indarrak erortzen zaizkio, ez du urrunago ikusten.

Orduan *fedearen* aldia da; gorakada harrigarri batean badoa adimenduak berenez ezin aurki dezazken egia batzuetaraino. Fedea da aiabaina Jainkoaren eta geure mixterioaz argitzen gaituen jainkozko grazia.

Fedetik hirugarren zirta bat ateratzen da: *amodioa*. Honi esker, ez du gizonak Jainkoaren mixterioa ezagutzen bakarrik, bai gozatzen ere, ezin erranezko grazia bereziz eta apartekoz betetzen zaiolarik. Estatu hori, Jainkoarekiko bat egite hori, «sainduen mistika» deitzen da.

Fedepean ere gelditzen zaigu ilunperik, edo mixteriorik, uler ezin detzakkegu gauza asko. Ez da narritzekoa. Illunbe horiek ez dute berenez ezin izanik. Berezkoak dira. Zergaitik? Jainkoaren argi biziak, egia aberatzegiak ikustea lanbrotzen eta debekatzen baitugu, eguzkiak argiegi denean itsutzen gaituen bezala, sua bera lotsarazten duen bezala.

Bainan Jainkoaren *argi-izpi* bat baliotsuago da, adimendua-
ren *pisu* guzia baino.

Etsalel atea hetxi

Kristauak, bere biziak arduratu behar duela ikasi duenean, bizia ahultzen duten etsai guzietan gogor egiten diete.

Hetxi atea alferkeriari

Kristok langileak nahi ditu eta baliaraz ditzan emaiten diozka «**talenduak**» **bakotxari**.

Alferrak bere *dohaiak* alferrik galtzen eta ondatzen uzten ditu.

Gizagaizo bat dirudi, landarc bizikorrak lurpe ilun hotz batean euki lezazkena!

Ekin, esku-lanetan edo buru-lanetan, *zentzuz* eta *gartsuki!*

Ez egin ezer ere *erdizka*, egin behar dituzun sailetarik gogoko dituzunak hartuz eta bertzeak utziz. Holako moduak, hartu-eta hutzikoak, biziaren kaltetan dira.

Hetxi atea tristeziari

«Egon zaitezte pozik eta alai», esaten zien Jaunak Aposto-
luai, gehienak sarraskituruk hiltzekoak zirela zakielarik.

Nahigabe baten ondotik (edozein oker, eritasun, dolu eta bihotz-minen ondotik), *tentazio* handia da edozeintzat, guziz ilun eta goibeldurik egoitea.

Zenbat fedegabe ez dituzte kristauak Jainkoaren eta Elizaren ganik urruntzean, triste agertzen direlako!

Bclarrondoko bat bezala izan bekigu Nietzsche gogorraren hitz hau: «Kristau horiek ez dira nahiko salbatuak agertzen!

Hetxi atea bekatuari

Izan ere, *bekatua*, edozein bekatu (gezur, lapurreta, gaizki esate, lohikeria, harrokeria), zerbaitetan bizia lehartzea, bizia jo eta haustea da.

Erljio katolikoak, zinez bizi-eder baten aide ideki eta jarri nahi bagaitu, agerian da behar dizkigula ttipitzen gaituzten, gizon-ezago egiten gaituzten egitate guziak debekatu.

Zori gaitzez, debekuak gogoz kontrako egiten zaizkie askori: debekuen trabak ikusten dituzte, eta ez haien abantailak, aide onak.

Errege-bide bazterretan abisu batzu izaten dira karteletan jarriak autodunentzat: *Bihurgune gaixtoa; Horako bidea ez hartu; Hemen geldi; Hemen ez geldi*, eta holakoak. Abisu horiek, trabak traba dirala ere, autoz ibiltarien onetan dira, ezbeharretarik, ixtripuetarik haiek zaitzeko. Zoroak litezke, holako debekuen kontra hasarretuko balira.

Gauza berea ez ote da erran behar erlijaren debekuez haserretzen direnez?

P. Lafitte (1901-1985)

Oharra: IDEK ETA ZABAL, 1974 argitaratutako liburutik jaso dugu zati hau, ikutu bat edo beste eginez, Lafitte zenaren Nafar-Lapurdiara gure irakurle gehienentzat ulerterrazago egingo dalakoan. Esaterako hazi bihi-ren orde, biali igorri-ven orde...